

## 2021KO KONTROL FINANTZIEROKO URTEKO PLANA

### 1. SARRERA

Administrazio publikoaren ondasunen eta ondarearen osotasuna zaintze aldera eta 2021ko kudeaketa ekonomiko egokia bermatze aldera, jarduera horren gaineko kontrolak ezartzen dituzten arauak existitzen dira. Kontu-Hartzailearen barne-kontrolaren bidez, Urnietako Udalaren helburua legeen eta arau aplikagarrien betekizunean konfiantza –maila ematea da. Era berean, udaleko arlo desberdinen kudeaketan finantza informazioaren fidagarritasuna eta eragiketen eraginkortasuna bermatzea lortu nahi da.

Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

Eginkizun kontu-hartzailearen xedea toki entitatearen egintzak kontrolatzea da. Berauen sailkapena edozein izanik ere, nahiz eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerek eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, egintzen kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela ziurtatu nahi da.

Kontrol finantzarioaren xedea berriz, udal zerbitzuen eta menpeko Merkataritza Sozietateen egintza ekonomikoa eta finantzarioa antolamendu juridikora zein finantza-kudeaketa egokiaren printzipio nagusietara egokitzen dela ziurtatzea da. Betiere baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak, kalitateak eta gardentasunak nahiz aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko printzipioek gidatuta daudela kontuan izanik.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 2018ko abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak bere 30. artikulua ezartzen duenaren arabera Organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituen.

Kontrol finantzarioko urteko planak barnean hartuko ditu, batetik, legezko betebeharraren ondorioz organo kontu-hartzaileak egin beharrekoak diren jarduketak guztiak eta, bestetik, helburuak, ekitaldi bakoitzeko lehentasunak eta eskura dauden bitartekoak aztertzen dituen arrisku analisi batean oinarrituta urtez urte aukeratzen diren jarduketak.

Kontratu publikoen legearen aldaketa dela eta 2021eko urteko planaren lehentasunetako bat kontratatuen gaineko kontrola izango da, bai lizitatutako kontratuen kontrola eta bai kontratu txikiena.

Honez gain plan honen helburu nagusia jarraian aipatzen diren atalen kontrola izango da: diru-laguntzen helburuen betetze maila, diru-laguntzen zuriketak eta zerbitzuak emateagatiko tasen errola.

Plana udalbatzarrera eramango da haren berri emateko.

## **2. KONTROL ORGANOA**

Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 136. Artikuluak ezartzen dunaren arabera Udal- kontuhartzaitzari dagokio ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barruko kontrol eta fiskalizazioa.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren arabide juridikoa erregulatzen duen 2018ko abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak bere 4. artikulua ezartzen duenaren arabera, kontu-hartzailea autonomia osoz arituko da berak kontrolatzen dituen organo eta entitateei dagokienez. Horretarako, barne kontrola egiten duten funtzionarioek independentzia funtzionala izango dute kontrolpeko entitateetako titularrei dagokienez.

## **3. APLIKAZIO EREMUA**

Plan hau Urnietako Udalari eta %100ko jabetzan dituen Kulturnieta S.A. eta Urnieta Eraiki S.A. Merkataritza Sozietate publikoei aplikatuko zaie.

## **4. PLANAREN EKINTZAK**

### **4.1 KONTROL IRAUNKORRA: Finantza-kontrola udal administrazioaren kontrol iraunkorreko modalitatean.**

#### **4.1.1.UDAL-AURREKONTU OROKORRAREN GASTUEN EGOERARI DAGOKIONEZ**

##### **- KONTROL IRAUNKORRA KONTRATUEN EREMUAN**

##### **a) Inbertsioen eta hornikuntzen harrera eta egiaztapena**

Funts publikoekin finantzaturako obretan eta hornikuntzetan egindako inbertsioaren harreraren eta egiaztapen materialaren bidez, horien zenbatekoa 40.000 eurokoa edo gehiagokoa denean (BEZ kanpo). Horretarako, kudeaketa organoek udal kontu-hartzaitzaren laguntza eskatu beharko dute egiaztapen eta harrera-akta horiek egiteko.

##### **b) Kontratuen eraginkortasun- eta finantza-kontrola**

Urnietako Udalak egindako kontratuei dagokienez, gutxienez udal-sail bakoitzeko bi aukeratu beharko dira, laginketa-bidez, eta honako alderdi hauetako batzuekin edo guztiekin lotuta egon ahalko da:

- a) Kontratuaren helburuen betetze-maila.
- b) Kontratuaren funtzionamenduaren kostuaren analisia.
- c) Kontratuan jasotako hobekuntzen betetzea.
- d) Kontratua egikaritzeko baldintza berezien betetzea.
- e) Konprometitutako epeen betetzea.
- f) Prestazioaren modalitatearen aukeraren, lekuaren eta atxikitako baliabideen analisia.
- g) Kontratazio-espeditatearen izapidetzea, araudi aplikagarriaren arabera.

### **c) Kontratu txikien eraginkortasun- eta finantza-kontrola**

Kontratu txikien kontrolari dagokionez, Sareko programaren aldaketak kontuan izanik kontratu txikien eskaerak programa horren bidez bideratuko dira, eta honek ziurtatuko du kontratu txikietan kreditu nahikoa eta egokia egotea. Hala ere, hiruhilero kontratu txikien kontrol finantzieroa egingo da Sarekoren bitartez ateratzen den txostenarekin.

#### **- KONTROL IRAUNKORRA DIRU-LAGUNTZEN ETA LAGUNTZEN EREMUAN**

##### **a) 2021an emandako diru-laguntzak pertsona edo erakunde onuradunak behar bezala eskuratu dituela egiaztatzea**

Diru-laguntza eta hitzarmen izendunetan esleitutako zenbatekoen ordainketa eta transferentzia-aginduei dagozkien azterketa egingo da. Urnietako Udalak egindako ordainketa eta diru-laguntzaren edo hitzarmenaren ebazpena egiten denetik ordaindu arte igarotako epeak egiaztatuko dira; bai aurreratutako ordainketaren fasean, bai ordainketa partzialaren fasean, diru-laguntzaren justifikazioaren ostean. Horretarako 2021an ebazten diren diru-laguntzen eta hitzarmenen lagin bat hartuko da.

##### **b) 2021an emandako diru-laguntzen eta hitzarmenen justifikazioaren egiaztapena**

Lagin baten bidez aukeratutako espedienteetan justifikatzeko aurkeztu diren fakturak egiaztatuko dira eta baita beraien ordainketa ere. Bestalde, diru-laguntzen plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzen direla egiaztatuko da.

#### **- LANGILERIA-GASTUEN KONTROL IRAUNKORRA**

Aurrekontuaren 1. Kapituluko gastuen kontrol iraunkorra jarraian adierazten diren ekintzetan oinarrituko da eta Kontu-hartzaitzaren baliabideen arabera burutuko da:

- a) Lanpostuen Zerrendan funtzionarioek, lan-kontratudun langileek edo behin-behineko langileek okupatutako lanpostu guztiak agertzen direla egiaztatzea.
- b) Lanpostuen Zerrendaren lanpostu guztietan dagozkien kidegoa edo eskala adierazten dela egiaztatzea, baita osagarri espezifikoak edo lanpostuaren osagarria zehazten dela ere.
- c) Langilariaren eta Lanpostuen Zerrendaren arteko korrelazioa egiaztatzea.
- d) Aparteko orduak aitortzeko espedienteetako dokumentazioaren egiaztapena hau da, aplikagarria den araudiarekin eta indarrean dagoen hitzarmenarekin bat datorrela.
- e) Kontratazio berrietan txostena dagoela egiaztatzea.

#### **- UDAL TALDE POLITIKOEI EGINDAKO EKARPENEN KONTROLA**

Udal talde politikoei egitez zaizkien ordainketak aplikagarria den araudietara eta onarturiko akordioetara egokitzen direla egiaztatzea.

### **4.1.2. UDAL-AURREKONTU OROKORRAREN DIRU-SARREREN EGOERARI DAGOKIONEZ**

#### **- DIRU-SARREREN EGIAZTAPENA**

Aurretiazko fiskalizazioa egin ez den eskubideen eta diru sarrerren egiaztapena.

#### **- KAXEN EGIAZTAPENA**

Udalak dituen kaxa ezberdinetan diruaren kudeaketa eta kontaktak behar bezala egiten direla egiaztatzea.

- **ZERGEN KOBRANTZA-KUDEAKETAREN FINANTZA-KONTROLA**

Baliabideen arabera, kobrantza-kudeaketaren azterlana hauen gainean egingo da: Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta , Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.

- **TASEN ETA PREZIO , KOBRANTZA-KUDEAKETAREN FINANTZA KONTROLA**

Finantza kontrola tasa eta prezio publiko hauetan egitea proposatzen da:

- a) Lurreko, aireko eta lur azpiko bide publikoen erabileraren tasa.
- b) Kultur ikastaroen tasa
- c) Aldi baterako etxebizitzaren tasa.
- d) Udalekuen tasa

- **KOBRAZKEKE DAUDEN ESKUBIDEEN FINANTZA-KONTROLA**

Kobratzeke dauden eskubideen finantza-kontrola egingo da, kobratzeko jarduerak gauzatu daitezen edo, hala badagokio, bildu ezin direnak bazter daitezen.

Horretarako, kobratzeke dauden aitortutako eskubideen kontrola egingo da . Urtean behin kobratzeke dauden eskubiderik zaharrenak aztertuko dira eta diruzaintza gerakina kobragaitzen saldoarekin doituko da, zuhurtziazko eta irudi fideleko kontabilitate-printzipioak bermatzeko xedearekin. Bestalde, saldo kobragaitzen eta preskribatutako zorren zerrenda onartuko da.

**4.2 AUDITORETZA PUBLIKOA: Finantza-kontrola auditoretza publikoko modalitatean udal merkataritza-sozietateei**

Auditoretza publikoan, egiaztatu egingo da, geroago eta sistematikoki, tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa, eta, horretarako, sektore publikoaren auditoretza arauetan jasotako berrikuspen prozedura selektiboak erabiliko dira.

32/2018 Foru Dekretuak bere 30. artikulua ezartzen duenaren arabera Organo kontu-hartzaileak urteko planean jasota dauden tokiko sektore publikoko merkataritza sozietateen urteko kontuen auditoretzak egin beharko ditu.

2021 ekitaldian Kulturnieta S.A. eta Urnieta Eraiki S.A. sozietateen kontuen auditoretza betetze auditoretza eta auditoretza operatiboa egingo da.

Kontuen auditoretzaren xedea urteko kontuen bidez ondarearen, egoera finantzarioaren, entitatearen emaitzen eta, hala badagokio, aurrekontuaren exekuzioaren irudi leiala islatzen ote den, alderdi esanguratsu guztietan, hari aplikagarri zaizkion kontabilitate eta aurrekontu arau eta printzipioekin bat eginez, eta, baita ere, urteko kontuetan haiek egoki interpretatu eta ulertzeko behar den informazioa ematen ote den egiaztatzea da.

Bestalde, betetze auditoretzan ziurtatu egingo da kudeaketa ekonomiko-finantzarioko egintzak, eragiketak eta prozedurak haiei aplikagarri zaizkien arauari jarraituz gauzatu direla. Auditoretza honen xedea izango da tokiko sektore publikoaren kudeaketa hobetzea, zehazki alderdi hauetan: ekonomia, finantzak, ondarea, aurrekontua, kontabilitatea, antolaketa eta prozedura.

Eta azkenik, auditoretza operatiboan sistematikoki eta objektiboki aztertuko dira antolakunde, programa, jarduera edo funtzio publiko baten eragiketak eta prozedurak. Haren helburua izango da balorazio independente bat egitea haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioaz eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokieraz, betiere balizko akatsak sumatu eta gomendio egokiak proposatze aldera. Era berean, tokiko sektore publikoaren kudeaketa hobetzea ere izango du xede, honako alderdi hauei dagokienez: ekonomia, finantzak, ondarea, aurrekontua, kontabilitatea, antolaketa eta prozedura.

Auditoretza publiko hauek kanpo kontratazioaren bidez gauzatuko dira.

## **5. PLANAREN GAUZAPENA**

Kontrol iraunkorreko lanak garatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak sistematikoki eta horretarako hautatutako operazioen edo jardueren analisi prozedurak aplikatuz egingo dira, hau da, froga nahikoak, egokiak eta baliadunak eskuratzea ahalbidetzen dutenak.

Besteak beste, hauek izango dira burutuko diren jarduerak:

- a) Kudeaketa-arloek egindako kontabilitate-erregistroen, kontuen, finantza egoeren edo segimendu-egoeren azterketa.
- b) Banakako operazio zehatzen azterketa.
- c) Egintzen multzo baten alderdi partzialen eta zehatzen egiaztapena.
- d) Obren, zerbitzuen eta horniduren egiaztapen materiala eta adostasuna.
- e) Kudeaketa-prozeduren eta sistemen analisisa.
- f) Kudeaketa ekonomiko-finantzarioko sistema informatikoen berrikuspena

## **6. PLANAREN EMAITZA**

Kontrol iraunkorreko jarduketan eta auditoretza bakoitzaren emaitza idatzizko txostenetan dokumentatuko da. Haietan, modu argi, objektibo eta neurtuan azalduko dira egiaztatutako gertakariak, lortutako ondorioak eta, hala badagokio, kontrolpeko jarduketei buruzko gomendioak. Era berean, berehalako jarduketa zuzentzaile baten bidez zuzendu beharreko akatsak adieraziko dira, eta hura gauzatu dela ziurtatu beharko da ondorengo kontrol jarduketetan.

Organo kontu-hartzaileak urtero eta kontu orokorraren onarpena dela-eta prestatu beharko du barne kontroleko emaitzen txosten laburtzailea. Txostena osoko bilkurara bidaliko da, korporazioko lehendakariaren bidez.



Urdetako  
udala

Honen ondoren, Alkateak ekintza plan bat formalizatuko du, eta bertan barnean hartuko dira aurreko atalean aipatutako txostenean agerian jartzen diren ahuleziak, akatsak, erroreak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak